

# ABENDLIKO KOLOREAK 1

Zagoze zuhur, beraz, ez dakizue-lako zuen Jauna zein egunetan etorriko dan. Badakizue: etxeko jaunak baleki gaueko zein ordutan etorriko dan lapurra, zuhur egongo litzake, eta ez leuke bere etxea zulatzen itziko. Zuok ere prest egon zaitezte, uste ez dozuen orduan etorriko jatzuelako gizonaren semea.

Mateo 24, 42-44



Abenduaren kolorea da  
Eliz barruan morea,  
Seigarren Plana aitzaki dala  
bertso sorta dotorea  
orlegi, hori, urdina, gorri  
hona gure kolorea  
laurok batuta plan bakarra da  
hazi behar dan lorea.

Abenduaren lehen domekan  
gabon ez da urrunegi,  
mila kolorez margoztu daigun  
etxe, eliza, lantegi.

ez iragarri gure burua:  
Jesus dogu gure egi,  
berak jarriko danon barruan  
Esperantzaren orlegi.

Zelan buztartu abendualdia, espe-  
rantza eta bihotz-barritzea, VI. Eban-  
jelizazio Planagaz? Hortxe erronka!

## 1. ERRONKA: IRAGARRI

Zer iragarri? Nori? Nork? Zelan?  
Isaias dogu eredu.



Abendualdian gura dozu sakondu  
Jesusen ebanjelioan? Emon izena.  
Liburu bategaz batzar bat hilean  
behin Pagolaren Jesusen taldeak  
liburuagaz.

# ABENDLIKO KOLOREAK 2

Nik urez bateatzen zaituet, bihotz-barritu zaitezen; nire ostean datorrena, oster, ni baino ahaltsuagoa da, eta ni ez naz inor haren oinetakoak eroateko ere; harek Espiritu Santuaz eta suz bateatuko zaituen. Eskuan dauko sardea; larraina garbituko dau eta garia sabaian batuko dau; lastoa, barriz, amatau ezin daiteken sutan erreko dau.

*Mateo 3, 11-12*



Abenduaren kolorea da  
Eliz barruan morea,  
Seigarren Plana aitzaki dala  
bertso sorta dotorea  
orlegi, hori, urdina, gorri  
hona gure kolorea  
laurok batuta plan bakarra da  
hazi behar dan lorea.

Abenduaren bide honetan  
Joan dogu bide txori:  
txiki ta handi, alkar lagunduz,  
gonbidatu edonori.

Espirituak emongo deusku  
behar dogun indar hori,  
alkarteagaz txapeldunaren  
jantziko guk maillot hori.

Zelan buztartu abendualdia, espe-  
rantza eta bihotz-barritzea, VI. Eban-  
jelizazino Planagaz? Hortxe erronka!

## 2. ERRONKA: ALKARTEA

**Alkartean ibili**, taldea egin, ho-  
ria da garailearen ikurra. Txikiak,  
handiak, harrak eta emeak, gazte  
eta zaharrak, gutarrak eta besteta-  
rrak... danok gagoz deituta.



Abendualdian gura dozu sakondu  
Jesusen ebanjelioan? Emon izena.  
Liburu bategaz batzar bat hilean  
behin Pagolaren Jesusen taldeak  
liburuagaz.

# ABENDUKO KOLOREAK 3

Egi-egia dinotsuet: ez da sortu amaren semerik, Joan Bateatzailea baino andiagorik. Halan ere, zeruetako erreinuan txikiena, Ha baino handiagoa da..

Mateo 11, 11



Abenduaren kolorea da  
Eliz barruan morea,  
Seigarren Plana aitzaki dala  
bertso sorta dotorea  
orlegi, hori, urdina, gorri  
hona gure kolorea  
laurok batuta plan bakarra da  
hazi behar dan lorea.

Abenduaren hirugarrena  
gogoan mina, samina,  
pandemi honek zabaldu deusku  
tristura, kanta ezina.

Jesus Umea gugana dator,  
hau bai Jainko ezbardina!,  
bere pozagaz kanta bihotza,  
itxaso, zeru urdina.



Zelan buztartu abendualdia, espe-  
rantza eta bihotz-barritzea, VI. Eban-  
jelizazino Planagaz? Hortxe erronka!

## 3. ERRONKA: OSPATU

**Bizitza ospatu.** Ospatzeko arrazoirik bai? Nortzuk falta jakuz? Samina nahastatzen dot ala esperantza? Bizitza ospatzen dogu, ona zein txarra, ala errito hutsak errepikatu? Jainkoaren zer irudi erakusten dogu? Poza eta kanta gure bihotzetik heltzen da naturara, izadira? (Laudato Si)



Nor bisitatuko dot edo nori  
deituko deusat asteen esperantza  
zabaltzeko?

# ABENDLIKO KOLOREAK 4

Guzti hau jazo zan, Jaunak Profetaren ahoz esandakoa bete zedin: “Begira, Birjineak sabelean sortu eta semea izango dau, eta Emmanuel ezarriko deutsoe izena, hau da, “Jaungoikoa gugaz”.

Mateo 1, 22-24



“Argiaren autormena egitera etorri zan” (Mt 1,7)  
“Vino para dar testimonio de la luz” (Jn 1,9)

Abenduaren kolorea da Eliz barruan morea, Seigarren Plana aitzaki dala bertso sorta dotorea orlegi, hori, urdina, gorri hona gure kolorea laurok batuta plan bakarra da hazi behar dan lorea.

Abenduaren azken domeka, arbolak galdu orria, guk irabazi: Salbatzailea gugana da etorria, pastore eta aingeruekaz askatasun oskorria.

Pobre jaio da, pobrea dadin bere irudi gorria.

Zelan buztartu abendualdia, esperantza eta bihotz-barritzea, VI. Ebanjelizazio Planagaz? Hortxe erronka!

## 4. ERRONKA: SERBIDU

Nor bizi da kale gorrian? Nor jaio zan kale gorrian? Nor makurtu zan guregana? Nor jaio da pobre? Pobrearengan ikusten ete dogu Jainkoaren aurpegia?



Caritasek dei berezia egiten deusku Abendualdia amaitzeko. Ze detaile izango dot pobreakaz? Zer konpartituko dot: dirua, astia, maitasuna?